



2019-2023

LEGEALDI-
PLANA



Zein da gure xedea?

Basauriko herritarren **beharrei** erantzutea, haien **bizi-kalitatea** eta **ongizatea** hobetzeko, udal-zerbitzu **eraginkorrak** eskainiz eta **proiektu estrategikoak** eta ekintzak bultzatuz, Basauriren ekonomia- eta gizarte-garapena bermatzeko.



BASAURI BAT...

- ▶ **1.** Etengabeko **garapenean, aukerak** emango dizkiena pertsoneri eta enpresei, eta **berrikuntza** eta **lehiakortasuna** bultzatuko dituen.
- ▶ **2. Solidarioa**, aukera gutxien dituzten pertsonen eta kolektiboen arduratuko dena.
- ▶ **3.** Aurrera egingo duena **hirigintza-eraldaketan** modu **jasangarri** batean, auzo **eraberritu** eta **irisgarriekin**, eta **berdeguneen** eta **aisia-guneen** sare zabal batekin.
- ▶ **4.** Ingurumena **babesteko** politikak eta **efizientzia** **energetikokoak** garatuko dituen.
- ▶ **5.** **Berdintasunean eta tolerantzian** heziko duena, **gizarte bidezkoago** eta **inklusiboago** bat eraikitzeko.
- ▶ **6.** **Bizia eta dinamikoa**, bere kultura-nortasunari eutsiko diona eta **euskara** sustatuko duena ikuspegi **kohesionatzaile** batetik.
- ▶ **7.** Udal **irisgarri, hurbil eta garden** bat izango duena, **auzotarren parte-hartzea** sustatuko duena eta herritarrei **udal-tramiteak** egiten lagunduko diona teknologia berrien laguntzaz.

Zer
udalerri
eraiki nahi
dugu?



Etengabeko garapenean, aukerak emango dizkiena pertsonai eta enpresei, eta berrikuntza eta lehiakortasuna bultzatuko dituen



ENPLEGUA ETA SUSTAPEN EKONOMIKOA

- 1 **Aukerak ematen dituzten lursailak** aprobetxatzea enpresa-jarduera berriak erakartzeko eta **egungo jarduerak garatu eta hazteko**. Besteak beste, SEPESein hasitako harremanak eta lan-ildoak areagotzea, **jarduera ekonomiko berri bat ezartzeko La Basconiako lursailetan**, bateragarria izango dena **bizitegi-garapen** batekin eta aintzat hartuko dituen udalerriaren egungo etxebizitza-beharrak eta HAPOa.
- 2 **Harremanak** sustatzea **udalerriko enpresekin, lankidetzak-esparruak** sortuz, enpresen posizionamendua hobetzeko eta udalerriarentzat positiboak izango diren **sinergiak** sortzeko.

Etengabeko garapenean, aukerak emango dizkiena pertsoneri eta enpresei, eta berrikuntza eta lehiakortasuna bultzatuko dituen



ENPLEGUA ETA SUSTAPEN EKONOMIKOA

- 3 **Behargintza** indartzen jarraitzea, erreferentzia-gune gisa udalerriko langabeentzat, ekintzaileentzat eta ETEentzat.
- 4 **Lankidetz**a sustatzea enpresen lehiakortasuna hobetzen laguntzen duten **erakundeekin**, erreferentzia-agente izanik haien programen garapenean.
- 5 Udalerriaren suspertze ekonomiko eta enpresariala inplementatzea, jarrera proaktibo bat erakutsiz **erakundeek bultzatzen dituzten enplegu-programen** garapenean, Basauriren ezaugarri eta beharretara egokituta.

Etengabeko garapenean, aukerak emango dizkiena pertsoneri eta enpresei, eta berrikuntza eta lehiakortasuna bultzatuko dituen



MERKATARITZA

6

Merkataritza eta ostalaritza sustatzeko programak bultzatzea; hala nola “Helmuga Basauri” eta tokiko kontsumoa sustatuko duten beste hainbat.

7

Prozesu bat garatzea merkataritza eta ostalaritza indartzea helburu duten **programak baloratzeko**, tokiko merkataritza bultzatuko duten **egitasmo berriak aztertuta sektoreko elkarteekin** eta gainerako erakunde eskudunekin batera.

8

“Basauri Bizia” egitasmoen agendan proposatzen diren **kanpainak eta jarduera irekiak sustatzea**, ikusgarritasun handiagoa emateko.

Etengabeko garapenean, aukerak emango dizkiena pertsonai eta enpresei, eta berrikuntza eta lehiakortasuna bultzatuko dituen



MERKATARITZA

- 9 Udalerriaren merkataritza- eta ostalaritza-eskaintza jasoko duen **mapa digital** bat egitea.
- 10 Abian jartzea **Basauriko Merkataritza Indartzeko Plan Berezitik eratorritako ekintzak**, hiri-merkataritza sendotu eta errealitate berrietara egokitu dadin, Basaurik erosketak egiteko udalerri erreferente izaten jarrai dezan.
- 11 Merkataritza-ordutegian **txandakako beste aparkaleku** bat ezartzeko bideragarritasuna aztertzea.
- 12 **Merkataritza-guneen konexioa hobetzea eta hobekuntzak egitea kaleen irisgarritasunean**, “Hirigune” programaren bidez.

Etengabeko garapenean, aukerak emango dizkiena pertsonai eta enpresei, eta berrikuntza eta lehiakortasuna bultzatuko dituen



MERKATARITZA

13

Herriko **enpresa eta saltokientzako laguntzak edo hobariak** ezartzeko formulak aztertzea, baldin eta lehen enpleguaren bila dabiltzan **gazteak** edo iraupen luzeko langabeak **kontratatzeko** badituzte.

14

Basauriko enpresa-parkearen katalogo sektorial bat egitea, gainerako enpresek udalerrian zer egiten den jakin dezaten, helburua izanik gure enpresek bertan aurkitzea behar duten guztia kanpora bila joan beharrik gabe.

15

Jarraipena ematea **eskola-materiala** Basauriko saltokietan erosteko **familiarentzako laguntzen** lerroari.

2

Solidarioa, aukera gutxien dituzten pertsonen eta kolektiboen arduratuko dena



16 Lehenetsuna ematea **kolektibo sozial zaugarrienen arretari**. Laguntza zaugarritasun-egoeran dauden basauriarrei, behar diren ekonomia- eta giza-baliabideak emanez Udal Gizarte Zerbitzuei.

17 Laguntzen **kontrol- eta jarraipen-sistemak indartzen** jarraitzea, gehien behar dituzten pertsonengana iristen direla ziurtatzeko.

18 “**Basauri adinekoekin atsegina**” programa garatzea. **135 ekintza** zehaztea, hainbat arlotan, Basauri udalerrri egokiago bat izan dadin adineko pertsonentzat (bakardadea detektatzeko plana, hiri-mugikortasuna eta -irigarritasuna hobetzea, zahartze aktiborako programak, gizarte-partaidetza sustatzea...).

Solidarioa, aukera gutxien dituzten pertsonen eta kolektiboen arduratuko dena

2



19

Gizarte eta hezkuntza-psikologiako laguntza **mendekotasunari**.

20

Belaunaldien arteko harremanak estutzea, ikastetxeetan bultzatutako ekimenen eta esperientzia-trukearen bidez.

21

Pertsona zaurgarrienak babesteko protokoloak egitea, **prebentzioa** sustatuta eta **ikastetxeak** eta kirol- eta **kultura-erakundeak** inplikaturak.

22

On-line jokoa eta apustuak lantzea **Bigarren Hezkuntzan** ematen diren alkohol eta drogen **prebentzio-tailerretan**.

Aurrera egingo duena hirigintza-eraldaketan modu jasangarri batean, auzo eraberritu eta irisgarriekin, eta berdeguneen eta aisia-guneen sare zabal batekin

3



HIRI-BERRIKUNTZA ETA IRISGARRITASUNA HOBETZEA

23

San Fausto, Bidebieta eta Pozokoetxe eraberritzeko plana egitea.

24

Larrazabal eta Baskonia Birgaitze Integraleko Eremu bihurtzeko urratsak egitea. Larrazabalen beste egitasmo batzuk garatzeko aukera aztertzea, ingurua suspertzeari begira.

25

Igogailu-proiektuen azterketa teknikoa egitea (**Karmelo Torre eta Foruak** Kareaga Goikoarekin), legealdi honetan gauzatzeko asmoz, baldin eta bideragarriak badira teknikoki eta ekonomikoki.

Aurrera egingo duena hirigintza-eraldaketan modu jasagarri batean, auzo eraberritu eta irisgarriekin, eta berdeguneen eta aisia-guneen sare zabal batekin



HIRI-BERRIKUNTZA ETA IRISGARRITASUNA HOBETZEA

- 26** **Zubi berri** bat eraikitzea **Larrazabal eta Pozokoetxe** artean.
- 27** Berrurbanizatzea eta irisgarritasuna hobetzea **Federico Mayoren hirugarren fasean**.
- 28** Berrurbanizatzea eta oztopo arkitektonikoak kentzea **Iparragirre kalean**.
- 29** Oztopo arkitektonikoak kentzea eta espaloia zabaltzea **Landa Doktorren kalearen** 14. zenbakiaren parean eta **Marcelino Gonzalezen** zati batean.

Aurrera egingo duena hirigintza-eraldaketan modu jasangarri batean, auzo eraberritu eta irisgarriekin, eta berdeguneen eta aisia-guneen sare zabal batekin



HIRI-BERRIKUNTZA ETA IRISGARRITASUNA HOBETZEA

- 30 Ramon Kareaga kalea** berrurbanizatzea.
- 31** Oinezkoen lehentasun-seinaleak jartzea **Uriarte kalean**.
- 32 Irisgarritasun Plana** eguneratzea.
- 33 Urbi kalea** berriz asfaltatzea.
- 34 Karmelo 3 ingurua** berrurbanizatzea.

Aurrera egingo duena hirigintza-eraldaketan modu jasangarri batean, auzo eraberritu eta irisgarriekin, eta berdeguneen eta aisia-guneen sare zabal batekin



HIRI-BERRIKUNTZA ETA IRISGARRITASUNA HOBETZEA

- 35 Sarrera eta irteera berrantolatzea **Artunduaga** kiroldegi eta **bolatoki** inguruan.
- 36 **Arizko Dorretxearen** ingurua egokitzea.
- 37 Oinezkoen pasabideak egokitzea eta led argiteria ipintzea **Larrazabalen**.
- 38 Segurtasuna areagotzea eta oinezkoen pasabidea egokitzea **Ibaigane kalean**.

Aurrera egingo duena hirigintza-eraldaketan modu jasangarri batean, auzo eraberritu eta irisgarriekin, eta berdeguneen eta aisia-guneen sare zabal batekin

3



PASEALEKUAK, BERDEGUNEAK ETA AISIA-GUNEAK HANDITZEA ETA EGOKITZEA

- 39 Goitik behera berritzea Mercabilbao ondoko **“Igelaren pasealekua”**.
- 40 Aldameneko udalerrietara doazen **oinezkoentzako eta bizikletentzako pasealekuak luzatzen** jarraitzea:
 - ➡ Oinezkoentzako eta bizikletentzako pasealeku bat eraikitzea **antzinako Arratiako tranbiaren ibilbidean**.
- 41 **Ibilbide osasungarrien sarea**, herritarrek ariketa fisikoa egitera bultzatzeko.
- 42 Bide biosasungarria **Asturias kalean**.

Aurrera egingo duena hirigintza-eraldaketan modu jasangarri batean, auzo eraberritu eta irisgarriekin, eta berdeguneen eta aisia-guneen sare zabal batekin



PASEALEKUAK, BERDEGUNEAK ETA AISIA-GUNEAK HANDITZEA ETA EGOKITZEA

43

Haur-jolaserako eta aisiarako eremuak handitzea eta egokitzea (besteak beste, **jolas egokituak** eta **estalki gehiago** jarritz).

- ➔ Aisia-gune berri bat “**Harearen parkean**”, **estalkia** eta haur-jolasen eremu berri bat izango dituen.
- ➔ **Karmelo Torre, Kantabria eta Zuberoako** haur-parkeen eraberritze osoa.
- ➔ **Bizkotxalde parkea** osoki eraberritzeko proiektua, eremu atsegina eta irisgarriagoa izan dadin.

Aurrera egingo duena hirigintza-eraldaketan modu jasangarri batean, auzo eraberritu eta irisgarriekin, eta berdeguneen eta aisia-guneen sare zabal batekin



ETXEBIZITZA

- 44 **453 etxebizitza babestu** eraikitzea, **saltzeko eta alokatzeko, San Migelen eta Azbarrenen.**
- 45 Gazteentzako alokairu baxuko **bizilekuak** eraikitzea, San Migelen eta Azbarrenen.
- 46 Hiri Antolamenduko Plan Orokorrak (HAPO) **Kareaga Goikoa I-II** zenbakietarako planteatzen duen **irtenbidea** bultzatzea.
- 47 Europako AGREE proiektua **eraikin zaharren birgaitze energetikorako**, Eusko jaurlaritzaren eskutik.

3

Aurrera egingo duena hirigintza-eraldaketan modu jasagarri batean, auzo eraberritu eta irisgarriekin, eta berdeguneen eta aisia-guneen sare zabal batekin



APARKALEKUAK ETA MUGIKORTASUNA

- 48 Doako lurgaineko aparkalekua **San Migelen** (35 leku).
- 49 Aparkaleku-kopurua handitzea eta egun daudenak optimizatzea (**Matxitxako kalea**, Pozokoetxen).
- 50 Seinalizazio horizontala **Urbiko** aparkalekuan.
- 51 Doako aparkaleku berriak San Migel, Sarratu eta Azbarrengo **etxebizitza-urbanizazioetan**.
- 52 **Trafikoa geldotzea** Urbin eta Katalunia kalean.

3

Aurrera egingo duena hirigintza-eraldaketan modu jasangarri batean, auzo eraberritu eta irisgarriekin, eta berdeguneen eta aisia-guneen sare zabal batekin



APARKALEKUAK ETA MUGIKORTASUNA

- 53 Hiri barruko joan-etorrietan **bizikleta erabiltzea** sustatzea.
- 54 Basauriko **Hiri Mugikortasun Jasangarriaren Plana** idaztea.

Aurrera egingo duena hirigintza-eraldaketan modu jasangarri batean, auzo eraberritu eta irisgarriekin, eta berdeguneen eta aisia-guneen sare zabal batekin



HIRIGINTZA-GARAPENA

55

Hiri antolamenduko plan orokorra behin betiko onartzea, helburuak izanik hiri-eremu atseginagoak eta irisgarriagoak lortzea (mugikortasuna hobetzeko eta udalerriko aparkaleku-defizita arintzeko neurrien bidez) eta udalerrriaren benetako beharretara egokitutako etxebizitza babestu eta libreen eskaintza bat egitea.

56

Urratsak egitea **gaur egun kuartelak eta espetxeak okupatzen dituzten lursailak berreskuratze**ko, udalerrriaren interes orokorreko erabileretarako.

4

Ingurumena babesteko politikak eta efizientzia energetikokoak garatuko dituen



- 57 **Klima Aldaketaren Ondorioetara Egokitzeko Plana** onartzea eta garatzea Basaurin.
- 58 **Eguzki-panel fotovoltaiakoak** instalatzea Artunduaga kiroldegian, instalazioak mantentzeko behar den energiaren herena sortzeko gai izango direnak.

4

Ingurumena babesteko politikak eta efizientzia energetikokoak garatuko dituen



- 59 Aurreko legealdietan hasitako **argiteria publikoa berritzeko prozesuarekin** jarraitzea, Basauriko kaleek argi egokiak izan ditzaten, bai ikuspegi luminoteknikotik bai ikuspegi ekonomikotik.
- 60 **Estalki berdeak** ipintzea udal eraikinetan.
- 61 **Ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntu bat** jartzea anbulatorioaren txandakako aparkalekuan, eta beste bat, San Migeleko aparkalekuan.
- 62 **Efizientzia energetikoko planarekin** jarraitzea.

4

Ingurumena babesteko politikak eta efizientzia energetikokoak garatuko dituen



63

Edukiontzi egokituak jartzea udalerriko hainbat lekutan, dibertsitate funtzionala duten guztiek horietako bat izan dezaten etxetik hurbil.

64

Jasangarritasun energetikoa bultzatzea udal arloan (zerbitzuak, programak...).

5

Berdintasunean eta tolerantzian heziko duena, gizarte bidezkoago eta inklusiboago bat eraikitzeko



- 65 Udalaren **Indarkeria Matxistaren Aurkako Planaren** ekintzak garatzen jarraitzea pixkanaka.
- 66 **Udal dirulaguntza** guztiak **kentzea berdintasun-balioak errespetatzen ez** dituzten elkarteei eta erakundeei.
- 67 **Emakumeen parte-hartzea** bermatzea udal mailako **bizitza politikoan, ekonomikoan eta sozialean**, Basauriren egunerokoan duten egitekoa bistaratuko duten politiken bitartez.
- 68 Kanpaina espezifikoak bultzatzea **sexu-dibertsitatearekiko errespetuaren** garrantzia ikusarazteko.

Berdintasunean eta tolerantzian heziko duena, gizarte bidezkoago eta inklusiboago bat eraikitzeko



69

Berdintasunean oinarritutako haurren heziketa sustatzen jarraitzea, tailer espezifiko bidez, elkarteen, kirol-erakundeen eta ikastetxeen laguntzaz.

70

Berdintasunari eta Tratu Onei buruzko kanpainak egiten jarraitzea, **gazteei** begira.

71

Basaurin **gizarte bidezkoago, inklusiboago eta kohesionatuago** baten alde egiten den lana indartzea, pertsonen arteko bizikidetza, kultura-dibertsitatea eta aukera-berdintasuna sustatzeko, kolektiboak, gizarte-erakundeak eta pertsona indibidualak erakarriz egitasmo horietara.

5

Berdintasunean eta tolerantzian heziko duena, gizarte bidezkoago eta inklusiboago bat eraikitzeko



- 72 **Zurumurrueen Aurkako Estrategia** programan sakontzea.
- 73 **Elkarteen eta kolektiboen** egitasmoak babesten jarraitzea; besteak beste, **gizarte-kohesioaren, inklusioaren, berdintasunaren eta nortasun pluralaren** alde egiten duten elkarteenak.

6

Bizia eta dinamikoa, bere kultura-nortasunari eutsiko diona eta euskara sustatuko duena ikuspegi kohesionatzaile batetik



KULTURA

- 74 Kultura sustatzen jarraitzea, kultura-eskaintza zabaltu eta berrituko duten **alternatiba eta programa berrien** bidez (jarduerari nahiz ordutegiari dagokienez), arreta berezia jarritz Basauriko elkarte eta kolektiboen jardueretan.
- 75 Besteak beste, Basauriren nortasun pluralaren, euskararen, kirolaren, kulturaren eta jai-eredua mantentzearen alde diharduten **elkarte eta kolektiboen egitasmoak babesten** jarraitzea.
- 76 **Kultura-etxeen** eta auzoetako **gizarte-etxeen programazioa indartzea eta hobetzea**, baita **Social Antzokiaren** programazioa ere, proiektu zinematografikoari eta hainbat diziplina artistikori dagokienez.

6

Bizia eta dinamikoa, bere kultura-nortasunari eutsiko diona eta euskara sustatuko duena ikuspegi kohesionatzaile batetik



KULTURA

- 77 **Kaleko jarduerak sustatzea auzo guztietan**, asteburuetan, Basauri erreferentzia izan dadin kultura-eskaintzan.
- 78 Beste ikastetxe batzuetara **zabaltzea** patioak eskola-ordutegitik kanpo erabiltzeko **“Patio Zabalik”** programa.
- 79 Aurrera egitea udalerriko gizarte-, elkartek- eta kultura-bizitzarekin harremana estutuko duen **Musika Eskola** eredu baterantz.
- 80 **San Migeleko Hernán Cortés eskola zaharraren eraberritzea** aztertzea, kultura-ekipamendu eta -zerbitzuak ezartzeari begira.

6

Bizia eta dinamikoa, bere kultura-nortasunari eutsiko diona eta euskara sustatuko duena ikuspegi kohesionatzaile batetik



KIROLA

- 81 Udalerriko **kirol-instalazioak handitzen eta egokitzen** jarraitzea. Besteak beste:
- 82 **Kirol anitzeko pista** bat eraikitzea.
- 83 **Aldagela berriak** Artunduagan.
- 84 Kiroldegi barruko **igerileku txikia** handitzea, **ur-jardueren ikastaroen eskaintza areagotzeko**; besteak beste, igeriketa-ikastaroak.
- 85 **Igerileku estalien eremu osoaren klimatizazioa** berritzea.

6

Bizia eta dinamikoa, bere kultura-nortasunari eutsiko diona eta euskara sustatuko duena ikuspegi kohesionatzaile batetik



KIROLA

- 86 Gaur egun erabiltzen ez diren estali gabeko bi **padel-pisten** eremua **berrurbanizatzea**, beste kirol batzuetarako erabiltzeko; hala nola, **kalistenia** edo **street workout**.
- 87 **Arrapala** berria **padel-pistetara** sartzeko.
- 88 **Armairuak aldatzea** Artunduaga kiroldegiko igerileku estalien eremuan.
- 89 **Aldagela indibidualak berritzea** Artunduaga kiroldegiko aldageletan.

6

Bizia eta dinamikoa, bere kultura-nortasunari eutsiko diona eta euskara sustatuko duena ikuspegi kohesionatzaile batetik



KIROLA

- 90 **Sarbide** independentea **boulder-eremura**.
- 91 **Artunduaga eta Urbiko** pabilioiak leuntzea/bernizatzea.
- 92 Basauriarren artean **ariketa fisikoa** sustatzeko **ekintzak eta programak** garatzen jarraitzea.

6

Bizia eta dinamikoa, bere kultura-nortasunari eutsiko diona eta euskara sustatuko duena ikuspegi kohesionatzaile batetik



EUSKARA

- 93 **Euskararen erabilera udalerriko kultura- eta gizarte-gune guztietan bultzatzen** jarraitzea, baita **familian, lan-munduan, merkataritzan eta ostalaritzan** ere.
- 94 Udalerriko **enpresetan euskara-planak** martxan jartzeko egitasmoak babestea.
- 95 **Kirol-entrenatzaileak, monitoreak** eta haur eta gazteekin lan egiten duten beste **eragile** batzuk euskararen erabileraren inguruan sentsibilizatzeko eta kontzientziatzeko ekimenak sustatzea.

6

Bizia eta dinamikoa, bere kultura-nortasunari eutsiko diona eta euskara sustatuko duena ikuspegi kohesionatzaile batetik



EUSKARA

- 96 **Euskararen erabilerari** buruzko **diagnostiko** bat egitea udalerriko elkarteekin eta erakundeekin, beharrak zehaztea xede duten kontraste-saioan bitartez.
- 97 Inguru euskaldunik ez duten **ikasleei laguntzeko** programa.
- 98 **Euskararen Erabileraren Normalizaziorako I. Plana** onartzea, eta **Udalak** herritarrekin dituen euskarazko harremanak sendotzeko ekintzak abiaraztea.
- 99 **Herritarren partaidetza- eta komunikazio-gune** bat sendotzea, “**Basauritarrak**” identifikazio-markarekin.

6

Bizia eta dinamikoa, bere kultura-nortasunari eutsiko diona eta euskara sustatuko duena ikuspegi kohesionatzaile batetik



EUSKARA

100

Immigrazioa eta Euskara zerbitzuetatik bultzatutako **hizkuntza-errefortzua, komunikazio-hizkuntzak eskuratzen** laguntzeko eskola-adinean dauden hurrei, hezkuntza-garapen egoki bati begira.

101

Euskara Arlotik udalerriko **dendariei eta ostalariei** laguntzea euskaren erabilera sustatzen:

- Laguntzak errotuluak, txartelak eta abar euskaraz edo bi hizkuntzetan jartzeko **gastuetarako**.
- **Euskara-ikastaroak**, praktikoak eta espezifikoak, merkataritzako eta ostalaritzako langileentzat, ordutegien eta edukien arabera egokituak.
- **Testuak itzultzeko eta zuzentzeko** doako zerbitzua.
- **Materialak eta kartelgintza-zerbitzua:** ordutegiak, prezioen zerrenda.³⁴ Itsasgarriak euskarazko esaldiekin, hizkuntza erabiltzera bultzatzeko.

6

Bizia eta dinamikoa, bere kultura-nortasunari eutsiko diona eta euskara sustatuko duena ikuspegi kohesionatzaile batetik



GAZTERIA

- 102 **Gaztegunea eta Gazte Informazio Bulegoa** udalerriaren erdian kokatzea.
- 103 **Gaueko aisialdi-programa alternatibo** bat martxan jartzea: “**GAUERO**”. Helburua da ikastetxeen, kiroldegien, kultura-etxeen eta abarren instalazioak aprobetxatzea gazteentzako jarduera-programa espezifiko bat abiarazteko: sukaldaritza-tailerrak, kirol-lehiaketak...
- 104 “**Gazte Diskoteka**” egitasmoa sendotzea eta zabaltzea.
- 105 Gazteentzako kultura-, kirol- eta **aisia-jarduera berriak** sustatzen jarraitzea, aurreko urteetako jarduerari jarraipena emateko.

6

Bizia eta dinamikoa, bere kultura-nortasunari eutsiko diona eta euskara sustatuko duena ikuspegi kohesionatzaile batetik



JAIK

106

San Faustoko **jai-eredu tradizionala** indartzea, baita San Migeleko eta beste **auzoetako jaiak** ere.

7

Udal irisgarri, hurbil eta garden bat izango duena, auzotarren parte-hartzea sustatuko duena eta herritarrei udal-izapideak egiten lagunduko diena teknologia berrien laguntzaz



Legealdi osoan zehar udal eraginkor, hurbil eta gardenago bat sustatuko dugu, herritarren partaidetza indartuko duena, eta basauriarrei udal-tramiteak erraztuko dizkiena, teknologia berrien laguntzaz eta Gobernu Ona harturik ekintza-ardatz estrategiko eta zeharkakotzat.

107

Martxan jartzea udal web berri bat, irisgarria eta intuitiboa, udal-informazioa eskuratzen lagunduko diena herritarrei, eta udal-tramiteak sinplifikatuko dituen. **Marienearen webgunea** berritzea (Berdintasuna).

108

Administrazio Elektronikoa ezartzea eta garatzea. Sistema honen bidez, Internet bidez jar daitezke harremanetan herritarrak Udalarekin, eta aukera ematen du zerbitzu publikoak modernizatzeko eta herritarren arreta hobetzeko.

7

Udal irisgarri, hurbil eta garden bat izango duena, auzotarren parte-hartzea sustatuko duena eta herritarrei udal-izapideak egiten lagunduko diena teknologia berrien laguntzaz



Administrazio Elektronikoen eta beste udal-baliabide batzuen bidez, **areagotu eta hobetu** egingo dira basauriarrek udalean egiten dituzten **tramiteak, web, email edo telefono** bidez, udaletxera modu presentzialean jo beharrik gabe.

Pixkanaka, aukera emango da programetan eta zerbitzuetan izena telematikoki emateko edo beste udal-tramite batzuk ere bide telematikoz egiteko: udalekuetan izena ematea, aldeztu aurreko hitzordu-sistema ekitaldi eta programa jakin batzuetarako, Lankidetzaren oinarrien tramitazio digitala, etab.

Halaber, arreta presentziala hobetu eta erraztuko da.

7

Udal irisgarri, hurbil eta garden bat izango duena, auzotarren parte-hartzea sustatuko duena eta herritarrei udal-izapideak egiten lagunduko diena teknologia berrien laguntzaz

Tramiteak sinplifikatzearen eta hobetzearen adibideak:

GIZARTE-ZERBITZUAK:

- Telelaguntza, mendekotasun-balorazio eta aparkaleku-txartela eskaeren tramitazioa Herritarrentzako Arreta Zerbitzuaren bidez (aukera izango da ere presentzialki egiteko, Bidearteko bulegoan).
- Herritarrentzako zerbitzua hobetzea, tramite horiei buruzko informazioa, dokumentazioa, eskaera-ereduak eta prozedurak **on-line** helaraziz.

7

Udal irisgarri, hurbil eta garden bat izango duena, auzotarren parte-hartzea sustatuko duena eta herritarrei udal-izapideak egiten lagunduko diena teknologia berrien laguntzaz

Tramiteak sinplifikatzearen eta hobetzearen adibideak:

HERRITARRENTZAKO ARRETA ZERBITZUA:

- Aldez aurreko hitzordu-sistema, herritarrei azkarrago eta hobeto erantzuteko.
- Terminal berri bat ezartzea San Migeleko HAZen, errolda-ziurtagiriak emateko.

BERDINTASUNA:

- Marienea: Ikastaro, liburu-aurrezpen edo hitzaldietan era birtualean parte hartzeko aukera.
- “Iera2kain” egitasmoaren on-line gune berria.

7

Udal irisgarri, hurbil eta garden bat izango duena, auzotarren parte-hartzea sustatuko duena eta herritarrei udal-izapideak egiten lagunduko diena teknologia berrien laguntzaz



109

PARTE-HARTZEA

Aurrekontu parte-hartzaileen prozesua hobetzea eta zabaltzea, herritarren erabakigaitasuna areagotuz udal-kontuetan sartu beharreko proiektuei dagokionez, eta aurrez zehaztutako aurrekontu bat ezartzea proposamen horiek gauzatzeko.

Herritarrei zuzendutako kontsultak sustatzen jarraituko da, gauzatu beharreko egitasmo posibleei buruz (herritarren parte-hartzea San Fausto plazaren etorkizuneko diseinuan, zaratatik babesteko eremu bereziei buruzko kontsulta, elkarte eta kolektiboetan euskararen erabilera ezagutzeko prozesu parte-hartzailea...).

7

Udal irisgarri, hurbil eta garden bat izango duena, auzotarren parte-hartzea sustatuko duena eta herritarrei udal-izapideak egiten lagunduko diena teknologia berrien laguntzaz



110

GARDENTASUNA

Udala gardentasunez kudeatzen jarraituko dugu, basauriarrei kontuak ematen, administrazio-gardentasuna indartu eta zabalduko duten egitasmo berrien bidez.

